# AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

## EKINTZA PLANA

**Behin betiko bertsioa**

**2013ko iraila**

### Laguntza teknikoa:

**ENEA eta IKERTALDE**

azpeitia
udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

udalsarea21
jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

# AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

## *EKINTZA PLANA 2013-2020*

***2013ko iraila***


## ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA: Azpeitiko Udala

**Eneko Etxeberria.** Alkatea

**Izaskun Ceciaga.** Ingurumen Teknikaria

## LAGUNTZA TEKNIKOA

**ENEA eta IKERTALDE**

**Ana López.** Nekazal Ingeniaria (Enea)

**Ainhoa Mitxelena**. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua (Ikertalde)

**Ainhoa Gea.** Industri Injeniaria (Enea)

**Susana Torregaray**. Geologian lizentziaduna (Enea)



**Eskertza:** Lan hau Udalsarea 21etik jasotako laguntzari esker egin da.

# AURKIBIDEA

## AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

***EKINTZA PLANA 2013-2020***

***2013ko iraila***


**Igo ATALA:** Laburpen exekutiboa 1

**II. ATALA:** Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa 9

1. **SARRERA ETA AURREKARIAK** 9
2. **AZPEITIA 2025 ESTRATEGIA: IKUSPEGIA, XEDEAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK** 11
3. **2013-2020 EKINTZA PLANA** 15
4. **EKINTZA PLANAREN SEGIMENDUA** 31

## AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

Azpeitiak 2025 urtera begirako **Plan Estrategikoa** du. Udalerriko garapen eredu berri baten oinarriak finkatu eta **iraunkortasunaren aldeko apustua** sendotzen duen plana hain zuzen. Bertan, hiri antolamendua, ingurumena, garapen ekonomikoa eta justizia soziala modu integralean jorratzen dira.

Udalerriko sektore ezberdinak ordezkatzen dituzten eragileekin batera landu da Plana, eta epe luzeko ikuspegi eta **elkarren arteko bide berria** marraztu nahi izan da.

Plana, egungo testuingurua eta **gastu publikoaren euspena** eta baliabideen arrazoizko erabileraren beharra kontuan hartuz egin da. Udal kudeaketan eraginkortasun maila altuagoa lortzea eta eskumenen esleipenean bikoizketak saihestea izan dira planaren oinarri.

Krisi ekonomikoak gogor astindu du Azpeitia, horregatik, udalerriko **garapen ekonomikoari eta enpleguaren bultzadari** pisu eta protagonismo berezia eman zaio. Eszenatoki honetan, egungo egoerari gogor heltzearren, udalak lidergo zuzena izan nahi du.



Lana fase desberdinetan garatu da:

- Hasieran, egoeraren **DIAGNOSTIKOA** egin da, udalerriko egoera ekonomikoa eta soziala ezagutzeko asmoz. Honez gain, kultura, euskera eta kirolarekin erlazionatutako gaiak ere aztertu egin dira. Diagnostikoan, udalerriko egungo gabezi edo ahultasun nagusiak identifikatu dira, gogor heldu beharreko gai zehatzak mahai gainean jarriz.

- Jarraian, Planaren **FORMULAZIO ESTRATEGIKOA** egin da, hau da, 2025 urtera begira ikuspegia definitu, hainbat xede ezarri eta planaren helburu estrategikoak identifikatu dira.
- Ondoren, arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen **EKINTZA PLANA**ren formulazioa egin da eta horretarako, diagnostikoan identifikatutako gabezi edo ahultasunak kontuan hartu dira.
- Azkenik, Ekintza Plan hau eta 2010ean onartu eta indarrean dagoen Agenda 21eko Planarekin batu egin dira, **AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA** osatuz.

## PROZESUAREN GAKO NAGUSIAK

Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa egiteko prozesuak berezitasun edo gako ezberdinak izan ditu, horien artean, ondoko hauek azpimarratu daitezke:

Alkatearen lidergoa eta parte-hartze prozesu integratua prozesu honen gako azpimarragarrienak izan direla aipa daiteke, etorkizunera begira, oinarri sendoak finkatu direlarik.

- **Prozesu berritzaile eta eraginkorra.** Prozesua berritzailea izan da eta oso egoera berezi baten neurrira egin da. Honez gain, lana ahalik eta modu eraginkorrenean egin da, aurretik egina eta indarrean zegoen lan guztia aprobetxatuz, eguneratuz eta elementu berriekin batuz.
  - **Alkatearen lidergoa.** Alkatearen lidergoa eta inplikazio zuzena, prozesuaren gako nagusienetariko bat izan da. Hau dela eta, Plana datozen urteetako udalaren estrategia bihurtu da.
  - **Indarra hartzen joan da.** Prozesuan zehar indarra hartzen joan den proiektua izan da eta hasiera batean berrikuste partzial bat izan behar zuen proiektuak, udalerriko Plan Estrategikoa izaten amaitu du.
  - **Parte-hartze prozesu integratua**: parte-hartze prozesua kudeatzeko hiru mahai sortu dira, non herritarrak, udal eta eskualdeko teknikariak eta politikariak elkartu diren. Hiru mahaiak modu paraleloan egin dute lan prozesu osoan zehar, elkarren artean konexio puntuak lortuz.
- **Eskualdeko ikuspegia.** eskualdeko eragileek parte-hartze zuzena izan dute prozesu osoan zehar. Honek beste ikuspuntu bat eman dio proiektuari eta guztiz aberastu du.
- **Herritarren mahaia.** Herritarren inplikazioa eta erantzuna oso positiboki baloratu da,  eta etorkizunera begira, kontuan hartu beharreko , talde eragile bat sortu dela esan daiteke. Parte hartzaileek, udalerria bere osotasunean ikusteko gaitasuna azaldu dute, bakoitzak dituen interes pertsonalak alde batera utzi eta udalerriko ondasun komuna helburu izan dute.

- **Planaren jarraipen eredua.** Urtero Planaren jarraipena egingo da, planteatutako helburuak zenbateraino betetzen ari diren neurtzeko eta, aldi berean, martxan jartzen ari diren ekintzekin zer nolako emaitzak lortzen ari diren baloratzeko. Honetaz gain, eta ebaluazioaren balorazioan oinarrituz, ondorengo urtean martxan jar daitezkeen jarduerak ere programatuko dira, aurrekontuekin lotzen saiatuz, horrela bakarrik bermatuko baita Planaren gauzatzea.

## PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

Parte-hartze planteamendua udalak jada martxan zituen mekanismoetan oinarrituta egon da. Herritarren parte hartze mekanismoa definitzeko garaian, *Denon Artean* prozesuarekin integratu nahi izan da, mekanismo paraleloak saihesteko.

Gauzak horrela, hiru mekanismo edo mahai sortu dira:

HERRITARREN MAHAIA

TEKNIKARIEN MAHAIA

POLITIKARIEN MAHAIA

### Herritarren mahaia

Udalerriaren sektore ezberdinak ordezkatzen dituzten eragile ezberdinez osaturiko taldea da (lehen sektorea, enpresa, hezkuntza,…). Alde batetik, *Denon Artean* prozesuan parte hartzen duten eragileak izan dira, beste eragile batzuk udaletik gonbidapen zuzena jaso dute, arlo desberdinek ordezkapena bermatzeko eta gainera, deialdi guztiak irekiak egin dira udalerriko edonori bertaratzeko aukera emateko.





## Teknikarien mahaia

Udal sail guztietako ordezkariek hartu dute parte, baita eskualdeko garapen ekonomikoaz eta landa garapenaz arduratzen diren erakunde ezberdinen ordezkariek ere.

## Politikarien mahaia

Talde honetan udal gobernu taldeak zein oposizioak parte hartu du. Prozesu osoan zehar, teknikari zein politikarien mahaian landutakoa Mahai honetara ekarri da, proiektuaren une garrantzitsuenen segimendua eginez.

# EKINTZA PLANAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Azpeitia 2025 Plan Estrategikoak **11 lerro estrategikoetan** egituratzen da, guztira, **55 programa** eta **257 ekintza** jasotzen dituelarik.

Hauek dira, hain zuzen, Plan honen ezaugarri nagusiak:

Plan Estrategikoa, 2012 eta 2013 urteetan eginiko arlo sozial eta ekonomikoari buruzko hausnarketan eta 2010ean onartutako ingurumen Planean oinarritzen da.

Guztira 257 ekintza jasotzen dira. Ekintza hauek 2013 eta 2020 urteen zehar aurrera eramatea planteatzen da, beti 2025. urterako zehazten diren helburu estrategikoak aintzat hartuz.

- Plan hau **bi planen batura** da: 2010ean onartua eta oraindik indarrean dagoen Agenda 21eko Plana eta prozesu honen bitartez egin berri den arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen Plana. Agenda 21eko Planak jasotzen dituen ekintza guztiak zuzenean txertatu dira, baina unea aprobetxatu da, hondakin eta energiari buruzko bi lerroak berrikusi eta egungo egoerari ahalik eta gehien egokitzeko.




- Ekintzak **epe motz, ertain eta luzera begira** planteatu dira. Aldi berean, lehentasunaren arabera ere, sailkatzen dira, hau da, **lehentasun altuko, ertaineko eta baxuko ekintzak** daude. Plan honek premiazkoak diren egungo arazo edo gabeziei erantzuna emateko ekintzak jasotzen ditu eta, datozen 8 urteetara begira, udalerriaren garapen iraunkorrerako bide berriak zabaltzen lagunduko dituzten ekintzak ere bai.

- Bestalde, ekintza bakoitzak bere **exekuzioaren eta segimenduaren ardura duen eragile bat** esleituta dauka, horrela, ekintzaren martxan jartzea eta segimendua bermatuta geratzen dira.

Planaren eduki nagusiak jarraian laburbiltzen dira:

## Garapen ekonomikoa eta enpleguari dagokienez

- Planak, datozen urteetarako udalerriko **garapen ekonomikoa** bultzatzeko planteamendua jasotzen du. Izan ere, garapen ekonomikoa eta **enpleguaren eremuak** Ekintza Planaren garrantzi edo pisu handieneko gaiak dira.
- **Udalak** arlo honetan **lidergo zuzena** izan nahi du. Horretarako, eskualde mailan sektore ekonomiko guztiak bultzatu eta hauen lehiakortasuna sustatzen laguntzen duten erakundeekin elkarlanean, aritzea planteatzen da, baliabide propioak erabiliz.
- Udalerriko **sektore ekonomiko ezberdinak** bultzatzeko ekintzak jasotzen dira: nekazal eremuan, sektore industrialean, merkataritzan eta turismo arloan, hain zuzen ere.
- Sektore guztietan **enplegua** sortu eta **lan merkaturatzea** erraztu, **ekintzailetasuna** bultzatu eta iraunkortasun zein berdintasun baloreak enpresa arloan txertatzeko ekintza ezberdinak proposatzen dira.
- Garapen profesionala eta langabetuen lan merkaturatzea errazteko dagokion **heziketa** sustatzea bilatzen da. Heziketa enpresen beharretara ahalik eta modu aproposenean egokitzea planteatzen da, lanbide heziketan arreta berezia jarriz.

## Eremu sozialei dagokienez

- Plan honek **gizarte segmentu** ezberdinei zuzendutako ekintzak jasotzen ditu: hirugarren adina, haur, nerabe eta gazteak eta etorkinak besteak beste. Etorkinei dagokienean, politika asistentzialetatik politika interbentzionistetarako pausua ematean jartzen da arreta.
- Bestalde, **parekidetasunaren** aldeko apustu sendoa egitea proposatzen da, udal barnetik hasita. Zentzu honetan, gai hau guztiz zeharkakoa denez, Plan osoan zehar berdintasun ikuspegia txertatu da.
- **Etxebizitza sozialak** eta alokairua sustatzeko ekintza ezberdinak jasotzen dira, udalerrian hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea errazteko neurri ezberdinak sustatuz.
- Azkenik, udaleko **gizarte zerbitzuek** diru laguntzak emateaz gain, herritarrei beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen dizkiela ezagutarazi nahi da, sail honen itxura hobetu nahian.

## Kultura, euskara eta kirol eremuei dagokienez

- Kultura arloan, Planak eragile ezberdinen **programazio bateratua** lantzean jartzen du atentzioa (Kultura saila, San Agustin eta gainerako elkarte eta sailek elkarlanean), bertan Kultur Mahaiaren inplikazioa eta jarraipen zuzena bultzatuz.

- Euskarari dagokionez, Azpeitian **euskararen erabilera** oso altua denez, beste tokietan eman ezin diren pausoak emateko aukera dago. Zentzu honetan, euskararen erabilera lan munduan sustatzea proposatzen da, euskara gutxien erabiltzen den eremua baita. Honetaz gain, 4. profilera heltzeko baliabideak hala nahi duen herritar ororen esku jarri eta sustapen lana egitea planteatzen da.
- **Kirol eremuari** dagokionez, alde batetik, **Plan bat garatzea** proposatzen da, gai honetan jarraitu beharreko ildo edo lerro nagusiak eta plangintza zehatz bat finkatzeko asmoz. Bestalde, beste ekintzen artean, kirol eskaintza egungo eskaerari egokitzea planteatzen da.

## Lurraldearekin erlazionatutako gaiei dagokienez

- Lurralde antolamenduaren eremuan, Planak zehazten duen irizpide nagusienetariko bat **lurzorua berrerabiltzea** da, egoitza garapen berriak utzitako lur hutsetan ezartzea lehenetsiz.
- Udalerriko **etxebizitzen birgaiketa** bultzatzen da,  bai hiri eremuan, bai landa eremuan.
- Bestalde, **ondare arkitektonikoa eta historikoa** mantendu, kontserbatu eta, behar den neurrian, birgaitzen joatea planteatzen da, udalerriak daukan ondare aberatsa balorean jartzeko asmoz.
- Landa eta natur eremuei dagokienez, **paisaia eta bioaniztasuna** balioan jartzea proposatzen da, horretarako lurzoru ez urbanizagarrietan kontserbazio eta hobekuntzarako irizpideak barneratu beharko dira.
- Honez gain, udalerriko **fauna eta floraren** kontserbaziorako ekintzak jasotzen dira, baita eremu berde eta espazio irekien garapena eta hobekuntza ere.
- Hala ere, esan beharra dago, Ekintza Plana onartu berri den **Hirigintza Antolamendu Plan Orokorrak** jasotzen dituen zehaztasunei egokitu behar ko dela.

## Parte-hartze eta barne koordinazioari dagokienez

- Planak **barne koordinaziorako mekanismoen** beharra mahai gainean jartzen du, horri erantzuna emateko, egitura egonkorrak sortu eta beharrezko baliabideak eskaintzea proposatzen da.
- Bestalde, udal langile zein herritarrei zuzenduriko iraunkortasunari buruzko **sentsibilizazioa** bultzatzea planteatzen da.
- Planak udal eta herritarren arteko **komunikazioa** hobetu eta errazteko asmoz, komunikabide berriak irekitzea eta zabaltzeko beharra jasotzen du.
- Eta honekin lotuta, **herritarren parte-hartzeari** bultzada inportantea emateko asmoa ere jasotzen da..

## Ingurumenari lotutako gaiei dagokienez

- Planak ingurumenari lotutako gai edo eremu ezberdinak jorratzen ditu. Horien artean, prozesu honen bitartez**, hondakin eta energiari** buruzko lerroei garrantzi berezia eman zaie eta bertan jasotzen diren ekintzen eguneraketa egin da.
- Hondakinei dagokienez, Planak **prebentzioan eta kontsumo arduratsuan** jartzen du atentzioa. Proposatzen diren ekimen ezberdinen artean, auzokonposta eta autokonposta sustatzea aipa daitezke.
- Energiaren eremuan, **kontsumo eraginkorraren** aldeko ekintzak pisu handienekoak dira, bai udal mailan (argiteria publikoan eta ekipamenduetan), bai etxebizitzetan eta, orokorrean, sektore guztietan.
- Honez gain, Planak **uraren kudeaketa** iraunkorra eta udalerriko jarduerek eta udalak berak sor ditzaketen **ingurumen inpaktuak murrizteko** ekintzak jasotzen ditu, horretarako kontrolak hobetu, prebentzio neurriak hartu eta udalean **erosketa eta kontratazio publiko berdea** ezartzeko planteamendua egiten da.

# II. ATALA: AZPEITIA 2025 Plan Estrategikoa

## 1. SARRERA ETA AURREKARIAK

Azpeitia udalerri aitzindari izan da Euskadi mailan iraunkortasunaren arloan. Hasiera hasieratik, gai hauetan aurreratuago egon diren udalerriekin batera aurrerapausoak eman ditu, gainontzeko beste udalerrientzako eredu eta ispilu izanez.

Plan Estrategiko honen bitartez egungo premiazko gabeziei erantzun azkarra eta zuzena eman nahi zaie eta, aldi berean, datozen urteetara begira, etorkizunerako norabidea zehaztu.

Iraunkortasunaren aldeko bide hau 2000. urtean egiten hasi zen, **Udaltalde 21 Pilotua**ren barruan. Azpeitia, beste taldekideekin batera, Euskadiko lehenengo Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak garatzen hasi ziren eta ondoren, 2002ko abenduan, **Udalsarea 21**, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, martxan jarri zuten. Azpeitiak, bere Agenda 21eko plana 2002ko urtarrilean bukatu zuen, Udalbatzan, 2003ko urtarrilera arte onartu ez bazen ere. Esperientzia Pilotuan oinarrituta eta bertan ikasitakoa aplikatuz, EAEko beste udalerriek euren Agenda 21ak diseinatu eta abian jarri dituzte. Gaur egun 200 udalerri inguru dira Udalsarea 21eko partaide.

Urteak aurrera, Azpeitiko Udala iraunkortasunaren aldeko urratsak ematen joan da. Horrela, 2008an, zaharkituta gelditzen ari zen Ekintza Plana berrikusteko premia antzeman zen. **Bigarren belaunaldiko plana** egiteko apustua egin zen eta bidean ikasitakoa aplikatuz, Euskadi mailan gai honetan murgilduta zeuden beste eragile guztiekin bat eginez kalitatezko plana egiteko apustua egin zuen Azpeitiak. Berritze prozesuan, metodologia berri bat garatzeko eta pilotatzeko sortu zen lan taldean parte hartzeko aukera izan zuen Azpeitiko Udalak. 2008an hasi eta 2010eko otsailean bere **II Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana** onartu zuen. Plana, egun indarrean dago baina esan beharra dago, bigarren belaunaldikoa izan arren ingurumen eta lurralde gaiak bakarrik jorratu dituela.

Azken urteetan, Udalerriko **egoera sozial eta ekonomikoa nabarmen aldatu da**. Langabezia-tasa etengabe gorantz doa, Gipuzkoako batez bestekoa gaindituz, eta gero eta familia gehiago dira udalaren laguntza behar dutenak aurrera jarraitzeko eta euren oinarrizko beharrak asetzeko. Garbi dago, beraz, egoera larri honen aurrean, udalak estrategia integral bat izatea derrigorrezkoa duela, udalerriko eragile guztiekin adostutako norabidea finkatuta.

Horretarako, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen berrikuspenetarako metodologian oinarrituta, **udalerriko arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen lehenengo diagnostikoa** egin da. Bertan, egungo egoera zein den aztertu eta ahulezi nagusiak mahai gainean jarri dira. Hortik abiatuta, datozen 8 urteetara begira, izaera estrategikoa duen Plana egin da. Honekin eta

indarrean zegoen  Agenda 21eko Ekintza Plana uztartuz, **Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa** eratu da, udalerria bere osotasunean hartzen duen Plana osatuz.

Plan Estrategiko honek **bi helburu nagusi** ditu, batetik, egungo arazo edo gabeziei erantzun zuzen eta azkarra eman eta, epe ertain eta luzera begira, udalerriko garapenerako iraunkortasun baloreak barneratzen dituzten oinarri sendoak finkatzea, bestetik.

# 2. AZPEITIA 2025 ESTRATEGIA: IKUSPEGIA, XEDEAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Azpeitia 2025 Planaren formulazio estrategikoaren elementu nagusiak ondoko hauek dira:

- **Ikuspegia**: 2025ean Azpeitia nolakoa izatea nahi dugun deskribatzen duen adierazpena.
- **Xedeak**: Plana ezarritakoan lortu nahi diren helburu kuantitatiboak.
- **Helburu Estrategikoak**: Planaren ezarpenarekin udalerrian lortu nahi diren hobekuntza helburu nagusiak.

## Ikuspegia

Azpeitia 2025 Plana udalerriko **IKUSPEGI** orokor batetik sortzen da, etorkizuneko Azpeitia islatzen duena, lerro bakoitzean dauden ekintzekin norantz aurreratu nahi den jasotzen duena. Hortik abiatuta, Plana "**Lerro Estrategiko-Programa-Ekintza"** eskema jarraituz egituratzen da.

Jarraian, Azpeitia 2025 Plan Estrategikoaren ikuspegia aurkezten da.

**2025ean Azpeitia udalerri euskalduna, zoriontsua eta baikorra da, kultur dinamikan erreferentea. Sektore oro eta ingurumenaren aldeko apustu irmoa egin du, parekidetasuna eta justizia sozialaren alde eginez.**

**Azpeitian enplegua eta bizilagunen ongizatea hobetu dira, hezkuntza-maila eta garapen profesionalarekin batera. Mugikortasun arloan ere, aurrerapauso handiak eman dira, honekin guztiarekin bizi-kalitate hobea lortuz.**

**Herritarrek udal politikan aktiboki parte hartzen dute, guztion udalerria eraikiz eta elkarbizitza ezin hobera iritsiz.**

Proposamen hau udal eta eskualdeko teknikari zein herritarrek, "Teknikarien Mahaia" eta "Herritarren Mahaia"-ren bitartez, egindako ekarpenetan oinarrituta dago.




**Irudia:** Teknikarien Mahaian osatutako "hitz-mapa"




**Irudia:** Herritarren Mahaian sortutako Azpeitia 2025 ikuspegiaren proposamena

## Xedeak

Planak helburuen araberako kudeaketa logikari erantzuten dio, udalerriko egoera orokorraren hobekuntza lortzeari zuzendutako kudeaketa moduari, eta honek neurgarria eta kuantifikagarria izan behar du. Horretarako, **XEDE** batzuk ezarri dira, Planaren ezartze bukaeran lortu beharreko helburu kuantitatiboak definitzen dituztenak. Ezartze fasean, xede hauen jarraipena tokiko iraunkortasun adierazleen bitartez egingo da.

Informazio honek egindako esfortzuaren eta lortutako hobekuntza emaitzen arteko kontrastea egitea baimentzen du, eta horrela, eraginkortasuna (lortutako hobekuntzak) eta efizientzia (lortutako hobekuntzak jarritako baliabideen arabera) baloratu ahalko dira.

Jarraian Azpeitia 2025 Plan Estrategikoaren eremuan definitutako xedeak aurkezten dira:

| | XEDEA (2025. urtea) | EGUNGO BALIOA |
|---|---|---|
| GARAPEN EKONOMIKOA | Establezimenduen kopurua Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik mantentzea | Azpeitia:<br>93,2 enpresa/1.000 biztanleko<br>Gipuzkoa:<br>89 enpresa/1.000 biztanleko |
| ENPLEGUA | Langabezia-tasa %5 izatea (krisi aurretiko datua)<br>Langabezia-tasa Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoa izatea | %13 inguru (2012. urtea) |
| ONGIZATEA | Asistentzia eskatzen duten 3. adineko pertsonen %100ei dagokion irtenbide/baliabidea eskaintzea | - |

| | | |
|---|---|---|
| ETXEBIZITZA | Etxebizitza hutsak dauden etxebizitza parke osoaren %10 baino gutxiago izatea. | %16,5<br>(2011. urtea) |
| HEZKUNTZA | Biztanleriaren %60 derrigorrezko bigarren hezkuntza baino maila altuagoko ikasketak edukitzea (lanbide, erdi edo goi-mailako hezkuntza) | %52,5<br>(2010. urtea) |
| HONDAKINAK | Hiri hondakinen birziklapen tasa %70 izatea | %27,5 (2011) |
| | Hiri hondakinen sorrera 1 kg/bizt/egun izatea lortzea | 1,2 kg/bizt/egun (2010) |
| ENERGIA ETA KLIMA ALDAKETA | Udalerriko BEG emisioak 2010ari dagokionez %20an murriztea | 81.367 b$CO_2$t (2010) |
| | Energia berriztagarrien ekoizpena bikoiztea | 59,7 kWh/bizt<br>(2010) |
| URA | Banaketa-sareko galerak uraren kontsumo osoaren %15aren azpitik egotea | %27,6 (2011) |
| MUGIKORTASUNA | Garraio publikoz egiten diren joan-etorriak %30 izatea | - |

## Helburu estrategikoak

Azkenik, **Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa**ren helburu estrategikoak aurkezten dira. Helburu hauek Planaren lerro estrategikoen oinarri izan dira. Kasu batzuetan helburu eta lerroen arteko elkarrekikotasun zuzena egon da; beste kasuetan, berriz, helburuak oinarritzat hartuz, lerroak zehaztu dira.

**1. AZPEITIAKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ, ENPLEGUA SORTUZ ETA GARAPEN PROFESIONAL EGOKIA AHALBIDERATUKO DUEN HEZKUNTZA ESKAINTZA BERMATUZ**

2. **HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ ETA ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIALA SUSTATUZ**

3. **EUSKARAREN SUSTAPENA EGIN, ORAIN ARTE ZABALKUNDERIK TXIKIENA IZAN DUTEN ARLOETAN BERE EZAGUTZA ETA ERABILPENA AREAGOTUZ**

4. **HERRIKO TALDE EZBERDINEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU, BI ARLO HAUETAN AZPEITIAK ERREFERENTEA IZATEN JARRAI DEZAN**

5. **UDALAREN ETA HERRITARREN ARTEKO ELKARLANEAN ETA GARDENTASUNEAN OINARRITZEN DEN PARTE-HARTZE ETA GOBERNANTZA EREDU BERRIA SENDOTU**

6. **HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDEKO APUSTUA EGIN, UDALERRIKO NATUR ETA PAISAIA BALOREAK ZAINDUZ ETA LANDA EREMUAREN KUDEAKETA EGOKIA BERMATUZ**

7. **HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASETU**

8. **KONTSUMO ERAGINKORREAN ETA TOKIKO ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIEN ZABALKUNTZAN OINARRITUTAKO ENERGIA EREDU BERRIA LORTU**

9. **KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATU HONDAKINEN SORKUNTZAREN PREBENTZIOA BULTZATZUZ ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA BIDERATU.**

10. **UDALERRIKO JARDUEREK ETA UDALAK BERAK SOR DITZAKETEN INGURUMEN INPAKTUAK MURRIZTU, KONTROLAK HOBETUZ, PREBENTZIO NEURRIAK HARTUZ ETA UDALEAN EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA EZARRI**

# 3. 2013-2020 EKINTZA PLANA

Azpeitia 2025 Plan Estrategiko ondoko 11 lerroetan egituratzen da:

**LE 1. AZPEITIAKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ**

**LE 2. HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETUTALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ ETA ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIALA SUSTATUZ**

**LE 3. HERRITARREI ZUZENDURIKO HEZKUNTZA ESKAINTZA EGOKITU ETA EUSKARAREN SUSTAPENA EGIN**

**LE 4. HERRIKO TALDE EZBERDINEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU ETA EGOKIA DISEINATU ETA ESKAINI**

**LE 5. IRAUNKORTASUN BALOREETAN HERRITARRA SENTIKORTU, HEZI, INFORMATU ETA UDAL KUDEAKETAN PARTE HAR DEZATEN BERMATZEA**

**LE 6. LURZORUAREN ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDEKO APOSTU EGIN, UDALERRIKO NATUR , PAISAIA ETA BIOANIZTASUNA ZAINDUZ ETA HIRI GUNEEN KALITATEA HOBETUZ**

**LE 7. UDALERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASETU**

**LE 8. ENERGIA MURRIZPEN, ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ETA ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIEN ERABILERAN OINARRITUKO DEN ENERGIA EREDUA LORTZEA**

**LE 9. KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATUZ HONDAKINEN SORKUNTZAREN PREBENTZIOA BULTZATZEA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA BIDERATZEA**

**LE 10. URAREN KUDEAKETA IRAUNKOR ETA ERAGINKORRA BURUTZEA**

**LE 11. UDALERRIKO JARDUEREK ETA UDALAK BERAK SOR DITZAKETEN INGURUMEN INPAKTUAK MURRIZTU, KONTROLAK HOBETUZ, PREBENTZIO NEURRIAK HARTUZ ETA UDALEAN EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA EZARRIZ**

Jarraian, **2013-2020 Ekintza Planaren eskema** aurkezten da: **Lerro Estrategikoak**, **Programak** eta **Ekintzak**. Ekintza bakoitzak gutxienez arduradun bat dauka esleituta, bere exekuzioaren eta segimenduaren ardura duen arduradun teknikoa.

# EKINTZA PLANA 2013-2020

| LERRO ESTRATEGIKOA | PROGRAMA | KODEA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | ARDURADUN NAGUSIA | BESTE ARDURADUNA | EPEA | KOSTUA (€) | LEHENTASUNA | GAIA | AALBORG KONRPOMISOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. LERRO ESTRATEGIKOA: AZPEITIAKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ** | **1.1. Programa: Udaletxetik garapen ekonomikoa eta enplegu arloaren sustapen eta kudeaketa propioranzko bidea lantzen hasi, progresiboki, beharrezkoak diren bitartekoak bermatuz eta arlo honetan diharduten eskualde mailako erakundeekin koordinatuz** | | | | | | | | | | |
| | | 1.1.1 | Azpeitiko Udalak datozen urteetan ekonomia arloan aurrera eraman nahi duen politikaren inguruko hausnarketa prozesua abiarazi | | Alkatetza | | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | 1.1.2 | Udaletxeko aurrekontuetan udalerriaren garapen ekonomikora bideraturiko partida edota ekarpenak egonkortu eta beharren arabera urtez urte egokituz joan | | Alkatetza | | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | 1.1.3 | Udaletxeak arlo honetan dituen baliabide propioak (Azpeitia Lantzen), zein partekaturiko baliabideak (bailarako Garapen Agentzia) optimizatu, ekimen ezberdinak aurrera eramateko bikoizketak ekiditeko ahalegin berezia eginez | Besteak beste, udalerri mailan burutu behar diren ekimen ezberdinak martxan jartzeko garaian eskualdeko eragileek, ahal den neurrian, ikuspegi lokala ere landu dezaten | Alkatetza | | | | | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | 1.1.4 | Eskualdeko eragile sozioekonomiko ezberdinen artean egitura amankomun bat eratzera bideraturiko prozesua abiarazi | Bailaran eragile ezberdinek diahardute: Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea, Loiola Berrikuntza Fundazioa... eta hauen artean egitura, irudi eta zerbitzu bateratu, integral eta amankomun bat eratzea izango litzateke helburua.<br>Horretarako ezinbestekoa da, koordinazio mahai baten sorrera, eragile bakoitzeko pertsona baten partehartzearekin .<br>Kontuan izanik, eragile hauek eskualde mailan aritzen direla, ezinbestekoa suertatzen da ardura, bi udaletxeen gain jartzea. | Alkatetza | Iraurgi Berritzen | Motza | 7.000 | Altua | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | **1.2. Programa: Nekazal jarduera suspertu eta babestu baliabide ekonomiko bezala** | | | | | | | | | | |
| | | 1.2.1 | "Baserritarren Batzordea" edo antzeko figura bat eratzeko aukera aztertu, herriko nekazaren beharrak identifikatu eta hauei erantzun eraginkorrak eskaintzeko | Ekintza honek herriko nekazari eta abeltzainek izan ditzaketen zailtasun eta beharrak udalari helarazteko, beraien ekarpenak egiteko eta elkarlanean ekintza eta neurri ezberdinak adostu eta aurrera eramateko elkargune bat eratzea du helburu. Hau da, landa eremuko biztanlegoaren bizi kalitatea hobetzeko ekintzak edo neurriak adosteko balioko luke, eta beharrezkoak diren zerbitzuak hobetzeko (komunikazioa, errepideak, ur hornidurak etabar…)<br>Horretarako, "Baserritarren Batzordea" edo antzeko figura bat sortzeko dauden aukerak aztertzea proposatzen da, eta bertan, herriko nekazariez gain, udal ordezkariek, nekazal munduko eragile ezberdinek eta garapen ekonomikoko agentziak parte hartu ahal izango dute. | Alkatetza | Urkome | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | 1.2.2 | Herriko baserritarrei laguntzeko ekimen zehatzak burutu | a) Baserritarren azoka<br>b) Bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko ekimenak martxan jarri sektore ezberdinen arteko elkarlana bultzatuz (Uztaro haur eskolarekin egiten den bezala), kontsumo taldeak sortuz…<br>c) Laguntza ekonomikoak<br>d) ..Lur bankua. Dauden lur beharrak identifikatu eta eskuragarri izan daitezen lan egin. Lur publikoak egon ezkero, nekazaritzari lotutako ekimenak bultzatzeko eskaini"<br>e) Formakuntza eskaini beharrak somatzen diren arloetan<br>f)Baserritarrak egiten duen lanarekiko sentiberatzeari eta partaidetzari lotutako ekintzak<br>g) baserri bisita gidatuak sustatu<br>h) Urkome sariak ekimena<br>i) Lehiakortasuna handitzeko, ustiategietan Enpresa erizpideak indartu | Alkatetza | Urkome | | | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | 1.2.3 | Lehen sektorean ondorengotza sustatu, gazteak nekazal mundura erakarri eta etorkizuneko aukera bezala ikus dezaten | Aholkularitza eskaini URKOME-tik<br>Programa ezberdinen bidez belaunaldi aldaketa bermatu nekazaritzan eta landa eremuan (GAZTENEK, GEROA…)<br>Formakuntza Atala landu | Urkome | Alkatetza | | | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | 1.2.4 | Udalerrian produktu ekologiko, selektu eta labeldunen ekoizpena sustatu eta euren merkaturatzea errazteko laguntza eskaini | • Asoziazionismoa eta elkarlana sustatu ustiategien eta ekoizeleen artean (Adz: baserritik.com)<br>• Erosketak errazteko modu ezberdinak eta berritzaileak landu: Online denda www.urolakostaonline.com<br>• Azoken dinamizazioan lan egin (bertako produktuak sustatzeko)<br>• Ekoizleen informazioa eskaini orain arte bezala eta urtero egokitzen joan : online gida www.urkome.com<br>Webgunean<br>• Sentikortzeko ekimenak egin: hitzarmen, itun edo konpromezu dekalogoa sustatu bertako produktuak sustatzeko | Urkome | Alkatetza | | | | Sentikortze eta kontsumo iraunkorra | 4.KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK |
| | | 1.2.5 | Nekazalturismoa bultzatu nekazal jardunaren osagarri bezala, aldi berean turismo arloko ostatu eskaintza indartuz | • Landa eremuan dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko laguntzen aholkularitza URKOMEtik eskaintzen daLanda eremuan egin nahi den edozein proiektu (enpresa edo ekimena) Europar Batasuneko programa ezberdinen bidez lagun daitezke eta hoiek eskualde honetan URKOMEk kudeatzen ditu (Leader, Erein…) | Alkatetza | Iraurgi Berritzen / Urkome | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | 1.2.6 | URKOME-ren 2014-2020 Plangintza berrian Azpeitiko udalaren parte-hartze aktiboa bultzatu, udaletik sustatzen diren ekintzak eskualde mailako politikekin koordinatu eta bat etor daitezen ziurtatzeko | Europar Batasuna 2013-2020rako plangintza egiten ari da. Honen arira, URKOME-k ere eskualdeko plangintza egingo du epe berdinerako. Horretarako eskualdeko udal eta landa eremuko eragile guztien beharra izango du. | Alkatetza | Urkome | | | | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | **1.3. Programa: Herriko sektore tradizionalak indartu eta lagundu udalerriko ekonomiaren motor bezala sektore industrialari arreta berezia eskainiz** | | | | | | | | | | |
| | | 1.3.1 | Lur industrialen antolamendua; Udalerriko lur industriala optimizatu, hutsik geratzen ari diren pabiloien aprobetxamendua sustatu… | | Alkatetza | | | | | Lurralde eta planeamendua | 5.HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA |

| LERRO ESTRATEGIKOA | PROGRAMA | KODEA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | ARDURADUN NAGUSIA | BESTE ARDURADUNA | EPEA | KOSTUA (€) | LEHENTASUNA | GAIA | AALBORG KONRPOMISOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **1.3.2** | Herriko enpresa txikiak bultzatu eta lagundu, udalerrian krisiak gehien eragin dien sektoreei arreta berezia eskainiz | Enpresa txikiei zuzenduriko zerbitzua eskaini Udala, IL- EG eta LBFren arteko koordinazioa bilatuz.<br>Zentzu honetan, enpresa txikien egoera eta beharren arabera , laguntza zerbitzu dezberdinak eskeintzeko aukera egongo liztateke (eskualdeko udalen artean "formato" amankomun bat adostu ostean). Zerbitzu honek barneratu ahal izango du:<br>- Prozesuan parte-hartzeko beharrezko informazioa eskaini<br>- Enpresa txikien zerbitzu eskaera konkretu, banakakoak eta personalizatuak.<br>- Eskualdeko enpresen elkarlan sare dinamikan partehartzea, prestakuntza prozesu eta enpresa esperientzien topagunea, enpresen berrikuntza prozesuan laguntzeko.<br>- Berrikuntza eta balio maila altuko proiektu estrategikoetan laguntza: dibersifikazioa, berrikuntza teknologikoa... enpresen arteko elkarlan proiektuak etab.<br>- Merkatuan daude eragile eta kanpo errekurtsoak identifikatu eta loturak ezarrri, akordio edo hitzarmen bitartez, enpresekin eta enpresei zerbitzua ematerakoan gakoak izan daitezkeenak.<br>Arreta berezia eskainiko zaie krisiak bortitzen eragin dien sektoreetako enpresei. | Iraurgi Berritzen | | | | | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | **1.3.3** | Enpresa haztegi zerbitzu bat eskaini azpeitiarrei, udalaren esku dauden lokal hutsak horretarako gaituz | Ezinbestekoa izango da Iraurgi Lantzenetik eskaintzen den enpresa berrien sorrerarako zerbitzuarekin koordinatzea; bertatik, bideragarritaun plana egin, diru-laguntzen berri eman eta enpresa sortu berriei jarraipena egingo zaie .<br>Koordinazio honetarako, pertsona bat izendatuko da ardura duten entitate bakoitzean eta bakoitzaren funtzioak eta betebeharrak zehaztu beharko dira, horretarako denen artean, prozesuaren diagrama bat marraztu beharko litzateke. | Alkatetza | | Motza | 100.000 | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | **1.3.4** | Herriko eta eskualdeko enpresen artean dauden lankidetza sareak indartu, egokitu eta koordinatu merkatuan lehiakorrago izateko eta nazioartekotzeko aukerak areagotzeko | Jorratu beharreko gaien artean, merkatuetako ingurumen eskakizunak aipatu, bai trakzio-enpresen hornitzaile direnean bai beraien produktuak zuzenean saltzen dituztenean<br>Eskualdearentzat estrategikoak diren proiektuak emango dira aurrera nazioartekotzea lan lerro dutenak besteak beste. Horretarako bai Iraurgi Lantzen, LBF, eta EG, merkatuan dauden errekurtsoak erabiliko dituzte.<br>Kontuan izanik nazioartekotzea, ezinbestekoa dutela enpresek, komenigarria da, identifikatzea, merkatuan dauden kanpo errekurtsoak, enpresei bide hau errazteko.<br>2013an BISIT-EKIN proiektuaren baitan hartutako informazioa, habiaburu izango da hurrengo urteetan zehar proiektu konkretuak bideratzeko. | Iraurgi Berritzen | | | 80.000 | | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | **1.3.5** | Enpresen dibertsifikazio eta berrikuntza prozesuak bultzatu | Eskualdearentzat, dibertsifikazio plana landu eta abian jarri, honako ingurunean oinarrituz:<br>- Eragileen indarrak, ezagutzan oinarritutako garapenean pillatu.<br>- Enpresek dituzten sendotasunen gain, abantaila konpetitiboak sortuz.<br>- Maila guztietako berrikuntza bultzatu, bai teknologikoa edo ta praktika bidez jasotakoa.<br>- Inguruko eragile guztiak inplikatu prozesuan, batik bat, berrikuntza bultzatzen dutenak.<br>- Neurtzeko sistemak ezarri.<br>• Helburua: bailarako dibersfikaziorako estrategia abian jarri, berrikuntza adimendu baten bitartez gaur egungo ehun produktiboa eraldatzeko.<br>• Proiektuan bideratuko diren ekintza nagusienak :<br>1. Mapa industrial bat egin :<br>• Enpresen klasifikazioa sektorezka<br>• Konpetentzia esentzielen identifikazioa<br>• Kapazidate teknologiko eta ez teknologikoen hausnarketa<br>• Enpresen etorkizuneko erronkak<br>• Diagnostiko teknologikoa<br>2. Hazkundean diren produktu-merkatu-teknologiak matrize bat egin eta bertan Urola Erdiko ahalmenetik abiaturik, lehentasun arlo batzuk identifikatu<br>3. Zaintza Teknologikoko herramientak, antena teknologiko gisa zerbitzuak eskeintzeko<br>KOSTUA:<br>• Pertsonalak : 1 Pertsona : 1 Perfila Ingenierua, Kostua : 50.000 € urteko.<br>• Kontratatu beharrezko aholkulari espezializatua (mapa industriala, produktu-merkatu teknologien azterketa eta zaintza teknologikoko herramienta): 60.000 €. | Iraurgi Berritzen | | Motza | 460.000 | | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | **1.3.6** | Oro har Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea eta Loiola Berrikuntza Fundazioak burutzen dituzten ekimen eta programa ezberdinetan Azpeitiko enpresa eta langileen parte hartzea bultzatu eta lagundu, ekimen hauen difusioa eta zabalkundea burutuz | Eskualdeko enpresen beharrak ezagutu eta partekatu eragile desberdinen artean, eta ahal den neurrian, erantzun bat eman informazioa erraztuaz, proiektuen exekuzioan lagunduaz edo ta beste eragile batzuena bideratuz.<br>Langileengan eragina<br>Kontuan izanik, ekimen hauen arrakasta bertan parte hartzen duten langieengan dagoela, baliagarria izango litzateke, eragile sozioekonomiko eta gizarte eragileekin, estrategia bat adostea, langileriaren parte hartzea bultzatzeko eta garrantzia emateko egiten diren ekimen desberdinei, eta duten eragina enpresaren lehiakortasunean.<br>Bideratuko diren ekintzak honakoak izango dira :<br>• Bitartekaritza eskualdeko enpresei, beharren arabera: lehiakortasuna bultzatzeko, berrikuntza, KAP (Karrera Amaierako Proiektuak), Internazionalizazioko Bekak, propietate industrial/teknologiakoa, Patenteak...<br>• Lehiakortasun eta berrikuntzaren eta eragile traktore izan,bailarako entitateen I+D+I-ko eskariari erantzunez.<br>• I+G+b-Iko agenteek kontuan izan ditzatela bailarako entitateen behar teknologikoak, proiektu formako teknologietaz, teknologien transferentzia, road map-en alineazioa ...horni ditzaten. | Iraurgi Berritzen | | Motza | 16.000 | | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | **1.4. Programa: Herriko merkataritza biziberritu eta kontsumoaren kanpora ihesa ekidin** | | | | | | | | | | |

| LERRO ESTRATEGIKOA | PROGRAMA | KODEA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | ARDURADUN NAGUSIA | BESTE ARDURADUNA | EPEA | KOSTUA (€) | LEHENTASUNA | GAIA | AALBORG KONRPOMISOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **1.4.1** | Herriko jendea sentsibilizatu herrian bertan eros dezan; Bertan Bizi Bertan Erosi! Lemapean | Sentzibilizazio kanpainak egin herriko merkataritzak dituen onurak erakutsi herritarrei. Adb:<br>- Gugandik gertu daudelako eta gure auzotarrak direlako<br>- Herriko dendariek tratu pertsonala eta zuzena eskaintzen dutelako<br>- Ezagutzen zaituztelako, pertsona gisa hartzen zaituztelako<br>- Herrian ekintzak sustatzen dituztelako<br>- Herriari bizitza eta kolorea ematen diolako<br>- Merkataritzarik gabe herritar asko lanik gabe gelditulo liratekeelako<br>- Bertan erosita, erosketak egiteko autoa hartu beharrik ez duzulako<br>- Herriko dendak desagertzen baldin badira momentu batean, di-da, bertatik bertara erosteko aukerarik ewz duzulako izango. | Alkatetza | Bertan | Luzea | | | Sentikortze eta kontsumo iraunkorra | 4.KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK |
| | | **1.4.2** | Industrialdeetan lanean ari diren beste udalerrietako langileek Azpeitian bertan kontsumi dezaten (erosketak, aisia, …) estimulatzeko neurri ezberdinak aztertu eta abiarazi herriko merkatari eta ostalariekin elkarlanean | Industrialdeetan lanean ari diren beste udalerrietako langileek Azpeitian bertan kontsumi dezaten merkatariok eta ostalariekin elkarlanean kanpaina "erakargarri" batzuk antolatu behar genituzke langile hoiek lanetik ertetzen direnean herrian geratzeko aitzakia izan dezaten. Adb:<br>Erosketen truke pintxo bat hartzeko bonoak atera... | Alkatetza | Bertan | Luzea | | | Sentikortze eta kontsumo iraunkorra | 4.KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK |
| | | **1.4.3** | Alde Zaharreko Mahaia indartu eta kontsolidatu | Alde zaharreko mahaia indartu eta kontsolidatzeko, alde zaharreko mahaia osatzen duten eragile ezberdinak gehiago elkartu beharko lirateke. | Alkatetza | Bertan | Motza | | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | **1.4.4** | Alde Zaharreko merkataritza biziberritzeko ekimenak abiarazi | a) Alde Zaharra erakargarriago egin, hirigintza sustapena eta merkataritza ingurunearen hobekuntzaren bidez (Hiri-altzariak berritu…)<br>b) Alde Zaharra oinezkotzeko aukerak aztertu<br>c) Lokal hutsak animatzeko ekintzak (herriko artisten obrak lokal hutsen erakusleihoetan)<br>d) Lokal hutsak mobilizatu eta jarduera berriak erakartzeko ekintzak (Lokal hutsak egokitu eta berrerabiltzeko programa)<br>e) … | Alkatetza | Bertan | | | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | **1.4.5** | Sektorean asoziazionismoa bultzatu | Dendari gehiago elkartean sartzea lortu<br>Sektorearen asozialismoa bultzatu eta indartzeko ostalariekin elkartu beharko ginateke<br>Elkartea indartzeko urtean zehar egiten ditugun ekintzez aparte beste ekintza berri batzuk antolatu | Alkatetza | Bertan | | | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | **1.4.6** | Sektorearen modernizazioa eta profesionalizazioan sakondu prestakuntza eta kalitate programen bidez | a) Teknologia berrietan, interneten, sare sozialetan eta hauek euren jardunean izan dezaketen eraginaren inguruan merkatariak sentsibilizatu eta prestatu<br>b) E-mailaren ezarpena eta Web guneen eguneraketa orokortzeko ahalegin berezia egin (E-comerce edo internet bidezko salmentara jauzia egiteko aurre-baldintza bezala)<br>c) Merkataritza arloan kalitateko programetan parte hartzea bultzatu | Alkatetza | Bertan | | | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | **1.4.7** | Merkataritza sare baten sorrera tokiko produktuak eta kontsumo iraunkorra sustatzeko | Ekintza honen bidez, ingurumen irizpideak betetzen dituzten produktuen eskaria areagotzeko saiakera egin beharko litzateke. | Alkatetza | Bertan | | | | Sentikortze eta kontsumo iraunkorra | 4.KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK |
| | | **1.4.8** | Azpeitia eta Azkoitiko Merkatari Elkarteak, Goierriko Dinamizazio bulegoa eta Iraurgi Lantzenen arteko koordinazioa eta elkarlana areagotu, baliabideak eta lana partekatu, sinergiak bilatu eta kostuak murrizteko | Eragile ezberdinok maiztasun gehiagorekin elkartu beharko genuke elkarlana areagotzeko eta kostuak murrizteko. | Alkatetza | Bertan | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | **1.5. Programa: Turismo arloa landu garapen ekonomikorako aukera bezala** | | | | | | | | | | |
| | | **1.5.1** | Jarduera turistikoan zerikusia eta inplikazioa duten eragile guztiak identifikatu eta berauen arteko koordinazioa bultzatu lanerako garaian, sinergiak bilatu, duplizidadeak ekidin eta efizientzia bilatzeko. | Turismo jarduera arlo desberdinetako baliabideak artikulatuz, balorean jarriz (marketina) eta merkaturatuz garatzen da. Hala nola, natur-ingurune baliabideak, ondareari lotutako kultur baliabideak, ekitaldiei lotutako kultur baliabideak, museoak edo gastronomiari lotutako baliabide eta eragile desberdinak.<br>Arlo bakoitzean aktore desberdinak daude inplikatuta. Turismo jardueraren kudeaketa arduradunak koordinaturik (Iraurgi Lantzen S.A. – Udala), arlo bakoitzeko eskaintza turistikoa gauzatzeko ezinbestekoak diren aktore hauek identifikatu eta beren lanean gidatu eta koordinatu behar dira, beharrezkoak diren baliabideak ipiniaz eta proiektua prozesu guztian kontrolatuaz.<br>Adibide bat:<br>Ondare kultural-erlijioso arloko produktua - San ignazio bere sorterrian (Loiolako Santutegia eta Azpeitia lotzen dituena edo Loiolako Santutegiko bisita Azpeitirako luzatze duena).<br>Baliabideak: Loiolako Santutegia, Sebastian Donearen Eliza Nagusia, Madanelako hospitalea (amaitzean).<br>Baliabide bakoitzaren arduradunak (eragile inplikatuak): Jesusen Lagundia, Elizako arduradunak, Erakunde publikoak (Iraurgi lantzen – udala).<br>Xedea: Identifikaturiko eragile hauekin elkarlanean eta beraien inplikazioarekin, Loiolako Santutegia eta Azpeitiko herrigunea lotzen dituen eskaintza turistiko bat artikulatu eta merkaturatu, Loiola eta Azpeitiaren arteko flujo turistikoak indartu asmoz. | Alkateza / Iraurgi Berritzen | Turismo bulegoa | Motza | 18.000 | Altua | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | **1.5.2** | Azpeitian dagoen Turismo Bulegoa optimizatu, Azpeitiko turismo arloaren kudeaketan eta dinamizazioan ere aktiboki parte har dezan | Loiolako Santutegian kokatzen den eskualdeko* Turismo Bulegoaren funtzionamendua bermatu. Euskadiko Turismo Bulego Sarean (iTourbask) sarean integratu.<br><br>*Eskualdeko Turismo Bulego izendapena izateko, bulegoaren kudeaketak Turismo Lankidetza Erakundea baten esku egon behar du. Izendapen hau Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak (Basquetouren eskutik) ematen alde bitariko lan hitzarmen baten bidez, eta Urola Erdia eskualdean Iraurgi Lantzenekin du sinatuta hitzarmen hau. Eskualdeko turismo bulego izendapenak, iTourbask sarean sartzeko aukera gehiago eta sarean bertan laguntza gehiago eskuratzeko aukera ematen du. | Iraurgi Berritzen | Alkatetza | Motza | 400.000 | Altua | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |

| LERRO ESTRATEGIKOA | PROGRAMA | KODEA | EKINTZA | DESKRIBAPENA | ARDURADUN NAGUSIA | BESTE ARDURADUNA | EPEA | KOSTUA (€) | LEHENTASUNA | GAIA | AALBORG KONRPOMISOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **1.5.3** | Udalerritik turismo arloan burutu daitezkeen ekintza ezberdinen "ibilbide orria" garatu | Ibilbide orri hau, Iraurgi Lantzenek eskualde mailarako definitu duen plangintzaren baitan joan behar du, Azpeitiko behar eta interesak eskualde mailakoekin uztartuz eta Udala, eta Iraurgi Lantzenek elkarlanean definitu eta garatu beharko lukete eta bertan besteak beste ondoko ildoak jorratuko lirateke:<br><br>a) Loiolako Santutegia eta Trenaren Museoaren inguruan, herriko baliabideak artikulatuz produktu turistiko desberdinak diseinatu, garatu eta merkaturatu Azpeitira hurbiltzen den publiko edo bezero tipologia ezberdinak kontuan hartuz (produktu erlijiosoa, kulturala, artistikoa, natur baliabideen ingurukoa…)<br>b) Inaziotar Ibilbideak izan dezakeen potentziala kontuan izanik, etorkizunari begira hau garatzeko lanak antolatzen hasi<br>c) Turismo berdearekin lotutako azpiegitura eta zerbitzu ezberdinak landu: nekazal turismoak, bidegorriak, ibilbideak, ingurunea, ondare arkitektonikoa, bisita gidatuak…<br>d) Urola eskualdeko gainerako udalerrietara etortzen diren bisitariak Azpeitira erakartzeko ekimen ezberdinak abiarazi udalerriotako turismo sailekin eta turismo arloko kooperazio enteekin elkarlanean<br>e) Kirol arloan burutzen diren eta oihartzun mediatiko handia duten jarduera ezberdinak (nazioarteko maratoi erdia, Iraurgi Cup, etab.) baliatu Azpeitia ezagutzera eman eta bisitariak erakartzeko<br>f) Bisitarien egonaldia luzatzeko berariazko produktu turistikoak landu (asteburuko egonaldiak, egun ezberdinetako ibilaldi eta bisita gidatuak…)<br>g) Gainerako sektoreekin elkarlana sustatu ekimen ezberdinak abiarazteko (ostalaritza, merkataritza, nekazal mundua…)<br>h) Gure gastronomia balorean jarri produktu turistiko gastronomikoa garatuaz: Gastronomia jardueraren balore kateko eragile desberdinak (baserritarrak, ekoizleak, jakien industria eta ostalaritza) inplikatuaz eskaintza bat garatu eta merkaturatu (jardunaldi gastronomikoak, azoka bereziak, dastatzeak, e.a.). | Alkateza | Iraurgi Berritzen | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | **1.5.4** | Dagoen turismo arloko ostatuen hutsunea estaltzera bideratuta ekintzailetza sustatu eta lagundu | Udalak martxan jarri berri duen enplegua, berrikuntza eta ekintzailetzaren sustapenari loturiko laguntza dekretuari lotuta. | Alkatetza | Iraurgi Berritzen | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | **1.5.5** | Sektorearen modernizazioa eta profesionalizazioan sakondu prestakuntza eta kalitate programen bidez | Iraurgi Lantzen S.A.ren eskutik kudeatu eta garatzen diren eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak bultzatzen dituen lehiakortasun Turistikorako programa desberdinetan parte hartzea bultzatu herriko enpresa turistikoen artean. | Iraurgi Berritzen | | Motza | 8.000 | | Lan merkatua | 9.BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| | | **1.5.6** | Eskualdeko Turismo Mahaian eta Mahai sektorialetan Azpeitiko udalaren eta turismo arloko enpresen parte hartzea indartu | Iraurgi Lantzen S.A.tik koordinatzen diren eskualde mailako turismo mahaietan parte hartu. | Alkatetza | | | | | Jarduera ekonomikoen ingurumen kudeaketa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | | **1.5.7** | Turismo kulturalaren arloko eskualde mailako Plana lantzeko garaian, arlo honetako eskualdeko erreferente nagusi bezala, Azpeitiko udalaren lidergoa bultzatu | | Alkatetza | Iraurgi Berritzen | | | | Garapen ekonomikoa | 8.TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| | **1.6. Programa: Egoerarik zailenetan dauden gizataldeei lan merkaturatzea erraztu eta talentu ihesa ekidin enplegua sortuz** | | | | | | | | | | |
